



## **PERKUSIO-INSTRUMENTUAK HAURREKIN EGITEKO DOSIERRA**



**Madalenetako Mila Koloreko Txupinazo Txikirako materiala ikastetxean lantzeko.**

Irakasle agurgarria,

Ondorengo txostenean, datozen Madalenetan, hain zuzen ere, datorren uztailaren 21ean arratsaldeko 16:30ean Zumarditik abiatuko den **Batuburrunba** animatzeko eskuz landutako Perkusioa egiteko deskribapena azaltzen da. Ekintza hori, **Mila Koloreko Txupinazo Txikiaren** barnean egongo da.

Irakasle baten laguntzaz, proposatzen da materiala landu dezazue zuon ikastetxean, ondoren, aurretik adierazitako datan erabiltzeko. Hala, musika talde batekin txupinazo momentura egingo duten ibilbidean horiek jotzeko aukera izango dute zuen ikasleek beste hurrekin batera.

Aurtengo gai zentrala aniztasuna izango da, uste baitugu jaiak elementu kohesionatzailea edota elkartzailea direla. Alegia, festak dira elkarbizitzarako ingurune hobe ezina.

Horregatik, egin ditzagun herriko jaiak guztion ondare kultural komuna, eta era berean, guztiok dugun ondare kultural anitza festaratu behar dugulakoan gaude.

Hori horrela, munduko perkusio desberdina eramango dugu Batuburrunbara. Izan ere, zer dira jaiak zaratarik gabe edo erritmorik gabe? munduko txoko guztietan ospatzen dira jaiak musika edota perkusio doinuaz.

Horregatik, material birziklatuaren bidez, ondoren deskribatzen diren perkusio instrumentuak edota zuei bururatzen zaizkizuen bestelakoak egitea proposatzen zaizue. Bestalde, Mila Koloreko Txupinazoa izanik, gonbitea egiten zaizue, era berean, mila kolorez horiek apaintzea edota margotzea.

Mila esker eta ekin sormenari!

## MARAKAK



### Beharrezko materialia:

-Plastikozko ur botila txiki bi

-Garbantzuak, arroza, harri txikian edota barruan sartzeko zarata egingo duen besterik.

-Zuhaitz adar bi muturrean sartzeko

-Zinta edota zelo aurreko bi horiek lotzeko

**Zein kontinenteetan erabiltzen dira:**

[Amerikan \(Hego amerketan\)](#)



## EURI MAKILA



### Beharrezko materialia:

-Sukaldeko paperaren oinarria (**kartoizko tubo**)

- Hori gurutzatuko duen **makilak** (barbakoa, hortzetakoak...)

-**Kartoi zati bi**, tuboaren alde biak ixteko

-**Arroza**

**Zein kontinenteetan dute jatorria?**

[Amerikan \(Hego ameriketean\)](#)



## DANBORRAK



### Beharrezko materialia:

- Janari **lata** handiak
- Puxika** handiak irekita
- Gomak

Zein kontinenteetan dute jatorria da?

[Afrika](#)



## KRISKITINAK



### Beharrezko materiala:

- Kartoi** zati bi nahi den forman mozteko
- Edari txapak**: lau kartoiaren alde bietan, bina pegatzeko
- Kola sendoa

Zein kontinenteetan dute jatorria?

[Asia \(Israel, Libano eta Siria\) nahiz eta mediterraneo osoan zabaldu ziren.](#)

## PANDERETA



### Beharrezko materiala:

- Adar zati** sendo samar bat
- Laban bat
- Mailua**
- Lija bat
- 4 iltze**
- 16 txapa** (edariena), mailuarekin hiltze bakoitzean launa jarri baino lehenago mailuarekin zapal jarri.

### Zein kontinenteetan du jatorria?

[Europa eta Asia \(Mesopotamia, Ekialde Ertaina, India, Grezia eta Erroma\).](#)



## KORDA INSTRUMENTUA



### Beharrezko materialia:

-Zapata kaxa bat, erdigunean zirkunferentzia bat moztuta

-Gomak

-Txintxetak

Zein kontinenteetan du jatorria?

[Asia eta Europa \(ez dago argi\).](#)